

9. ESKOLA FRANCOREN GARAIAN

...bitartean ere ikasi nuen, baina eskolan, arratsetan, arratseko eskolara joaten ginen. Arratsetan ematen zuten mojek, eskola, bai. Eta gero herriko... zen medikuaren amatxi bat eta hark izaten zuen errukia eskolara joaten ez ginenotzat. Klaro, nire anaiak eta denak gerrara joan ziren eta gu gelditu ginen aitarekin e... lau gazteenak. Eta, pues klaro, eta gero eskolara etortzen nintzen, baina arratsetan eta horrela. Eta, gero... klaro, eskola, izaten zen garaia, ematen zutena arratsetan, eta hura akabatu zenean, pues e... klaro, bueno, ya está, baserrian berriz eskola gabe. Baina horrek, mediku horren amatxik, ematen zion pena, hasi izanen nintzen ikasten segituan han, denbora hartan, eta egunero eramaten ninduten medikuaren etxera. Joaten nintzen ordu bat eta... han irakasten zidaten. Han irakatsi zidaten e... leitzen, eta eskribitzen eta kontuak egiten, zatiketak bitartean. Eta, bueno, horiek ikasi nituenean, ya está.

Oi, ni gaztea nitzelarik eskola... akitua genuen, guk ez genuen, hamasei urtetan ez ginen eskolara joan. Gu bitarte bai joan ginen, gurasoen bitarte, hamalau urte bitarte igorri gintuzten, a la fuerza, eskolara. Gure gurasoak horretarako onak izan ziren. Eta bertzenaz, gainera, multa paratzen zuten orduan. Bai, ez baginen joaten, paratzen zuten multa. Multa pagatzen zuten anitzek, ez baitziren denak joaten. Eta, baina gu joaten ginen.

Komunio handia egin nuen, hamabi urtetan egiten zen orduan, eta hamabi urtetan komunio handia egiteko, beraiek egin zizkidaten arropak eta denak eta... ya está, orduan akabatu nuen. Baina horiek ikasi nituen nik.

Ni eskolan, batzuetan joa... bidaltzen ninduten, eta, bidaliz gero joaten nintzen gainera, joan gabe ni ez nintzen gelditzen. Baina, lanerako etxean gelditzen ninduten anitzetan eta ez nuen segitzen eskolara. Eta, eskola gutxi samar ika... ikasi genuen. Klaro, ardiak...etarako eta, geldiarazi ninduten igual. Anitzetan badakit, nik eskolara etorri nahi eta ardiak bordan sartzera joan beharra. Eta, aitak: "Bai, joan behar baduk eskolara ere, ardiak... ardiak sartu behar ditek". Eta, bueno, ni galtza motzekin izaten nintzen eta bonbatxo luze batzuk bildu-bildu eginda ekartzen nituen eta herrian bazter batean uzten nituen eta gero joaten nintzen eta sartzten nituen ardiak eta biharamunean, nire ondoko baserrikoek ateratzen zituzten, berriz eskolara etortzen nintzen. Baina, ni neguan ibiltzen nintzen eskolan, ez nintzen gero lanak... behi aitzineko lanak eta hasiz gero, akabo nire es... nire eskolak akabatzen ziren!

Gero, hamasei urtetatik goiti, guk ez dakit, guk lan egin genuen, bertzerik ez.

Eta, eskolara, eskola gutzia joaten eta anaiak joaten ziren a... bidaltzen zituzten. Ez zuten kasurik egiten! Ez baginen joaten, inork ez zuen kasurik egiten. Dotrinara bai, e? Hamaiketan zuzen. Kanpaiak jotzen zituzten, ttin! ttin! ttin! "Ala, segi agudo! Baina dotrinatik ateratzean, agudo etorri". Eta joaten ginen, elizako behegian eta irakasten zigun apezak dotrina, dotrina denak ikasi genituen, aski ongi gainera! bai, eta, a... eskola, eskolan hagitz gutxi, hagitz gutxi! Urte bat edo horrela joan izan banintz eskolara, baina... ez, gauezko hartara joaten ginen. E? Eta baziren, aizu, nire lagunak eta nire... zenbat dira baserri haietan baziren nire lagunak eta ni baino zaharragoak, eta denak orduan. Ni ere... gazteagoa eta haiek, zaharragoak eta denetarik, eta, denak eskolarik gabe gelditu ziren. Han gelditu ziren, gauezkoan, eta ya está. Eta, ben, baina nik horiek denak ikasi nituen, ni ere baita... Aita Santukoa ere erdaraz entendituko nuke!

Erdararekin gauza... gauzak galdetu eta, komunera joateko ere igual beldurka samar eginda lehenbizian, gero nolabait ere galdetzen genuen eta... ez, horretarako ona izaten zen gainera eta ez, ez, galdetzeko... galdetzeko problemak izaten genituen, seguro! Ez genekien eta! Problema... problemak izaten genituen.

Fija zaitetz, nik hamar urtetan ez nekien batere erdaraz. Baina horiek, mantzurriano horiek denak baino azkarragoak gara gu, e? Hamar urtetan nik ikasi nuen erdaraz, ederki! Eta erraten dizut, defenditzen naiz izkina guztietan!